



Badator ehunmilak Ultra-Trail® probaren XI. edizioa, uztailaren 8, 9 eta 10ean

Probaren aurkezpen prentsaurrekoa

Pandemia egoerak eragindako bi urteko etenaren ondoren ehunmilak proba bueltan da! Aurreko edizioetako erakargarritasunarekin jarraitzen du, lasterketa guztietan dortsalak agortuz eta 1.600 lagun baino gehiagoko bolondres taldearekin.

Gaur eguerdian aurkeztu da ehunmilak probaren hamargarren edizioa, 2 parke natural (Aralar eta Aizkorri-Aratz) eta 30 herri gurutzatzen dira. Beste urtebetez ohiko 3 probak mantentzen dira: **“ehunmilak”** Ultra-Trail® proba (168km / D+11.000m), **“goierriko bi haundiak”** trail (88km / D+6.000m) eta **“marimurumendi”** maratoia (42km / D+2.300m).

Aurkezpen prentsaurrekoko mahaia honako hauek osatu dute: Xabier Eleizegi (Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo arduraduna), Leire Artola (Beasaingo alkatea), Alberto Iñurrategi (Ternua Group-eko Mountain team & event coordinator), Zigor Egia (Euskal Mendizale Federakuntzako lehendakaria) eta Andoni Zubeldia (ehunmilakeko lasterketa zuzendaria).

Datu aipagarriak:

- Partehartzaile kopuruak beteta: denera 1.295 lasterkarik eman dute izena: **“ehunmilak”** Ultra-Trail® 515 izen ematea (26 emakume eta taldekako modalitatean 9 talde), **“goierriko bi haundiak”** trail (41 emakume) eta **“marimurumendi”** maratoia (49 emakume).
- Bolondresen leialtasuna: korrikalariak behar bezala hartatu eta mimatzeko ibilbide osoan zehar 1.600 bolondres izango ditugu.
- Derrigorrezko materialean berritasunak: derrigorrezkoa izango da jaka iragazgaitza kaputxarekin eta atzealdeko argi gorria eramatea.
- Plastikoaren erabileran murrizketak: anoa guneeetan ez da plastikozko edalontzirik egongo (korrikalari bakoitzak bere ontzia eraman beharko du), 5 litroko bidoiak erabiliko dira 1,5 litroko botilen ordean eta bakoitzak bere txorrota izango du, anoa guneeetako ontzi eta mahai tresnak biodegradagarriak izango dira.
- Gurutze Gorriko taldearen barnean (160 kide), larrialdietako 22 mediku bere erizainekin egongo dira lanean dena behar bezala atera dadin.
- Anoa gunerik handienetan (Tolosa eta Etzegarate) fisioterapia eta podologia zerbitzuak egongo dira.
- Hazi fundazioarekin elkarlanean eta lasterketa finantzatzeko helburuarekin Bideluze plazan gune berria jarriko da jan-edanarekin (hanburguesa, burualdeko xolomoa eta sagardoa).

Probaren jarraipena:

Korrikalariak jarraitzeko modu ezberdinak egongo dira:

- Ibilbideko gune ezberdinetara doazen antolakuntzako autobus zerbitzua erabiliz.
- ehm edo g2h probetako korrikalarien daramaten Geokokapena edo GPS aparatuaren seinalearen bidez.
- Kontrol gune bakoitzean txipak markatzen duen denborarekin.
- Gure webgunearen bidez ikusi ahal izango den anoa gune ezberdinetako webcam irudien bidez
- Asteburu osoan zehar streaming-a egingo da helmugako pantaila erraldoian eta webgunean.

Informazio gehiagorako: www.ehunmilak.com

Facebook: <https://www.facebook.com/EhunmilakUltratrailG2h/>

Twitter: [@ehunmilakg2](https://twitter.com/ehunmilakg2)

Instagram: https://www.instagram.com/ehunmilak_ultratrail/

Kontaktua: ehunmilakultratrail@gmail.com

Kontakturako telefonoa: 676180690 (Iñaki)

Traola ofiziala: [#ehunmilak22](https://twitter.com/ehunmilak22)